

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

2020ko abenduaren 23ko hautatuaren behin betiko Espejoko Aterpetxearen Zuzendariaren zerrenda argitaratzeko ebazpena, Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoan hautaketa prozesurako deian, Gazteriaren Foru Erakundea Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoko lan kontratudun langileak kontratatzeko, uztailaren 10eko 374/2018 Erabakian, zeinaren bidez Gazteriaren Foru Erakundearen 2018rako enplegu eskaintza publikoa onesten den, aurreikusitakoaren arabera

2019ko maiatzaren 21eko Administrazio Kontseiluaren ebazpenaren bitartez onartu ziren Gazteriaren Foru Erakundearen 2019ko hautapen prozesuak arautzen duten oinarri orokorrak.

2020ko azaroaren 30ean, Espejoko Aterpetxearen Zuzendari lanposturako onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzen da dagokien lantoki zehatza adieraziz, eta erreklamazioak aurkezteko hamar egun balioduneko epea ezarriz.

7.6.2 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, onartutako izangaien behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta aurkezten direnak ebatzi ondoren, Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluaren Buruaren ebazpenaren bidez onartuko du hautatuen behin betiko zerrenda, bakoitzari dagokion lanpostuarekin, eta hogeitau egun naturaleko epea irekiko da deialdian eskatzen diren gaitasun baldintzak eta betekizunak egiaztatzeko agiriak aurkezteko.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.d) artikuluan xedatutakoaren bidez funtzio publikoaren gaitetan eskumena duen guztietan ezarritakoarekin bat etorritik.

XEDATU DUT

Lehenengoa. Hautatuen behin betiko zerrenda argitaratzea, Espejoko Aterpetxearen Zuzendari lanpostuan, dagokion lanpostuarekin, Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoan hautaketa prozesurako deian, Gazteriaren Foru Erakundea Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoko lan kontratudun langileak kontratatzeko:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Izaskun Álvarez Arteché	Espejoko Aterpetxearen Zuzendari / Director/a del Albergue de Espejo	060224

Bigarrena. Hogeitau eguneko epea irekitzea, Foru Agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita, aukeratutako izangaiak 8. oinarri orokorrean zehazten diren agiriak aurkez ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 23a

Kultura eta Kirol Diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO